

## **IBILBIDEA**

Lasterketaren hasera, Azpeitiko enparantza nagusian izango da eta lehen metroak herrian barrena egingo dituzte. Lehenik Enparan kalean beherantz abiatuko dira, eta Santiago kaletik, Ludoteka ondoan dauden eskaileretan gora ondoren.

Laisterkarik orduan izango dituzte eguneko lehen buru hausteak zeren eta behin eskaileretan sartzarekin batera, Xoxoteko aterperantz (905m) abiatuko baitira. Xoxoterantz, ohiko bidetik barrena igoko dira, hau da, lehenik Urretara(1.abituailamendua), hormigoizko bidean gora eta ondoren harri artean sartu, Nargunetik pasa, Azketako iturri ondotik igaro eta aterperantz (2.abituailamendua).

Aterpea igaro ondoren, aterpearen atzealdean dagoen lakoari itzuli bat eman eta Linoren txabolarantz abiatuko dira eta txabola ondotik igaroaz, Loiolatik datorren pistarekin bat egingo dute. Jarraian, metro batzuk pistan barrena egingo dituzte, Kakute alderantz. Kakute barrenera iristen direnean, Azkoititik (aitzatik) datorren bidean sartu eta Azkoiti alderantz joko dute, beti ere altuera galduz. Ondoren Pago bakar izenarekin izendatu dugun puntura iritsiko dira (3.abituailamendua). Puntu hau, Azkoitiko mendi lasterketan hain ezaguna egin den, Kakuteko malda handiaren azpia da. Maldan barrena, lasterkarien ondorengo helmuga Kakuteko (924m) gaina izango da.

Kakute igaro ondoren, Izki iturritik, aitxola aldera joango dira lasterkariak. Kilometro inguru egin ondoren eskuinera hartu eta kakuteko txabolarantz eta ondoren Erlorantz, eguneko punturik altuenaren bila (1026m). Erlora iritsi aurretik artzain txabola baten ondotik igaro beharko dute lasterkariak eta puntu honetan edukiko dute, 4. abituailamendua.

Erlo igaro ondoren, erloko antenara doan pistarekin bat egin eta metro batzuk pistan behera jarraituz, eskuinera hartu beharko dute lasterkariak. Jarraian, egin beharreko kilometro gehientsuenak beheraka izango dira. Hasieran GRz (marka zuri eta gorria) markaturiko bidean barrena joango dira (zestoarrek Erlora igo ohi duten bidea) eta pare bat kilometro egin ondoren marka zuri gorriak eskuin aldera hutsi eta pagotegi batean barrena sartuko dira. Piñutegi hau jaitxi ondoren (5.abituailamendua), pista zabal bati jarraituz, poliki-poliki altuera, galtzen joango dira. Bidean aurrera doazela PRz (marka zuri horiak) markaturiko bidean sartuko dira

eta ondorengo kilometro gehienak marka horien bidez markaturiko bidean egingo dituzte.

Haitz bakarraren azpitik eta Oanda baserrian gainera igaro ondoren, lasterkariak, eguneko azken aldapatxoari egin beharko diote aurre (6.abituailamendua). Aldapa igarota gero, dena beherantz izango dute, Toki eder baserrira iritsi arte. Baserrira eskuinetara hutsi eta Urbi gainera igaroz, Magdalenara iritsiko dira eta hemendik Erdi kaletik, herriko enparantza nagusira.

1. abituailamendua (Urreta):ura
2. abituailamendua (Xoxoteko aterpea):ura eta jatekoa
3. abituailamendua (Kakuteko malda azpia):ura
4. abituailamendua (artzain txabola):ura eta jatekoa
5. abituailamendua (pinutei azpia):ura
6. abituailamendua (Oanda ingurua):ura